

SERVICIOS DE TXINGUDI-TXINGUDIKO ZERBITZUAK S.A.

2024KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIARI DAGOKION

KUDEAKETA TXOSTENA

(1) Ekitaldia itxi ondoren gertatutako Sozietatearentzako garrantzitsuak diren gertakariak.

Ekitaldia itxi zenetik, ez da gertaera aipagarriarik izan. Gertaera ekonomiko-finantzario bakarrak, eta eragina izan dezaketenak sozietatearen urteko kontuetan eta egoera globalean 2025eko ekitaldian hurrengoak dira:

- PERTE laguntzak ematea Txinzerrek aurkeztutako proiektuari: TXINGUDI DATA DRIVEN BAY (TD2B) 2024an.

Proiektuaren kostu osoa 7.162.757 eurokoa izango da, eta aurrekontuaren %76,25a finantzatuta dago; zehazki, 5.461.297 euro, Trantsizio Ekologikoaren eta Erronka Demografikoaren Ministerioak finantzatuta, PRTRren Europako laguntzen esparruan.

Dirulaguntza horri esker, prozesua izugarri arinduko da, digitalizazioa bultzatuz modu integralean eta aurreikusitakoa baino epe laburragoan, baldin eta bultzada ekonomiko hori kontuan hartu izan ez balu.

Txingudi Data Driven Bayren (TD2B) helburua eskualdean uraren hiri-zikloaren kudeaketa eraldatzea eta modernizatzea da, teknologia aurreratuak digitalizatuz eta integratuz.

Proiektuak 62 jarduera ditu, hiru multzotan banatuta. Jarduera horietako batzuk 2024an hasi dira garatzen, baina 2025ean eta 2026an gauzatuko da proiektuaren zatirik handiena. Gauzatzeko epea 2026ko ekainaren 30era arte luzatuko da.

- Produktuen prezioen goranzko efektuarekin lotutakoak. Joera honek eragina izaten jarraituko du 2025ean, baina dirudiena baino azelerazio gutxiagorekin. Azaldutakoaren ondorioz, arazoak izaten ari dira lizitazioetan eta kontratuen epeetan, hornitzaileek ez baitute epe ertainera prezioak mantentzeko konpromisorik hartzen.

Aipatutako prezio igoeren ondorio negatiboaren ondorioz, eta inbertitzeko ahalmenari eusteko helburuarekin, 2024ko urriaren 14ko batzarrean 2025erako tarifak arautzen dituzten ordenantzak onartu ziren. Ordenantza horietan, %5eko igoera aurreikusten da ura kudeatzeko zerbitzuan, %5ekoa edukiontzi organikoa erabiltzen duten etxeko hondakinen zerbitzuan eta %12koa gainerakoetan.

Neurri horiek aplikatuko direla estimatuz, 2025ean Mankomunitatean eta Sozietatean inbertsioak egiteko aurreikusitako baliabideei eutsiko zaie.

Sozietatea eta Mankomunitateak emandako zerbitzuen prezioen igoeraren eragin negatiboari aurre egiteko eta 2021eko ekitaldian hartutakoekin jarraitzeko, 2024ko ordenantzetan pertsona eta errekurtsu gutxiko familientzako ezohiko neurrien jarraipena aurreikusten da, etxeko tarifa baino % 50 gutxiagoko beherapenekin.

Tarifa sozial horren barruan, 2024ko amaieran 184 familia kaltebera zeuden tarifa horren onuradun, eta, horren ondorioz, diru-sarrerak murriztu egin dira: 5.433 euro inguru sozietatean eta mankomunitatean, 5.513 euro inguru hondakinen jardueran, eta 17.300 euro inguru, uraren jardueran.

(2) Sozietatearen bilakaerari buruzko aurreikuspena.

Sozietatearen aldagai ekonomikoen aurreikuspenari dagokionez, Uraren Ziklo Integralaren barruan, honako hauek dira aurreikuspenak: PERTE programan jasotako proiektu gehienak gauzatzea (beherago garatzen ditugu), ura banatzeko sareen errendimendua hobetzea, saneamendu-sarea berritzea eta sare horien kudeaketa modernizatzea eta hobetzea.

2024an etxerako erabilitako uraren kontsumoa ia berdina izan da 2023koaren aldean, igoera txiki batekin (%1,22). 2024an etxekoa ez den fakturatutako kontsumoari dagokionez, -%4,95 jaitsi da 2023tik. Badirudi 2025eko ekitaldirako joera hori mantenduko dela, 2019an eta aurrekoetan izandakoaren antzekoa.

Aurreikusitako 2025eko ur-inbertsioei dagokienez, 8.655.893 euro izan dira, eta aurreko paragrafo batean deskribatutako PERTE proiektuari dagokionez, horietatik 4.222.920 euro exekuzio-egutegiarekin lotuta egongo dira, eta 4.432.973 euro finantzaketa propioa duten gainerako inbertsioentzat.

Gainerako inbertsioei dagokienez, zenbateko handiena duena 2025erako Errandoneako gordailua berritzearena da, 1.600.000 eurokoa. Era berean, udal-urbanizazioekin lotutako hainbat obra egitea aurreikusten da, hornidura-sarea eta saneamendu-sarea berritzea barne.

2025ean zehar, hondakinen zerbitzuan landa-eremuetarako edukiontzien eta bilketa organikorako edukiontzien berrikuntza amaituko da, txartel bidezko itxiera-sistemarekin. Edukiontzi horien aldaketa aprobetxatuz, sarrailek berrituko dira. Inbertsio horiek egiteko 500 mila euroko aurrekontua egin da guztira, eta Eusko Jaurlaritzak 217 mila euro finantzatu ditu.

2024an, atzeko kargako bi kamioi erosi eta martxan jarri dira Hondarribiko landa-eremuetarako eta alde zaharrerako.

2025ean, gainera, edukiontziak garbitzeko ibilgailu bat eta alboko karga biltzeko beste bat erostea espero da, baita 2 ibilgailu erabilgarri ere.

(3) Ikerketaren eta garapenaren arloko jarduerak.

Berrikuntza gisa, 2025ean aurreikusten da aipatutako Txingudi Data Driven Bay (TD2B) proiektuko ur jarduerekin lotutako ekintza gehienak egitea.

Zehazki, jarduera nagusiak eta horiek gauzatzeko aurreikusitako aurrekontua honako hauek dira:

JARDUERA NAGUSIAK	AURREKONTUA
Smart Water Center	965.000 €
Telelaguntza	1.090.000 €
Saneamendu sarearen digitalizazioa	1.020.000 €
Eredu matematikoak eta ekitaldiak kudeatzeko IA sistemak	400.000 €
Ur eta saneamendi sareetako sentzorika eta neurketa-ekipoak	892.000 €
Komunikazioak eta DPZ	718.000 €
Berreskurapen energetikoa	395.000 €
GIS - BIM	230.000 €
Plan eta proiektuak	540.000 €
WEB, oficina birtuala eta zibersegurtasuna	560.000 €

Ekimena sentsoreen implementazioan, adimen artifizialean eta Big Dataren kudeaketa eraginkorrean oinarritzen da, uraren ziklo osoa denbora errealean optimizatzeko. Horri esker, sistemaren ezagutza hobetuko da, ur-ekoizpena eskarira egokituko da, ihesak murriztuko dira, uholdeen ondorioak minimizatuko dira eta uraren kalitatea hobetuko da, eta hiriko saneamendu- eta drainatze-sareak optimizatuko dira, hodian egoera, emari zirkulatzailerak eta inguruneko gainezkabideen kudeaketa kontrolatuz.

Helburu horiek lortzeko, Txinzer-ek erabakiak hartzeko laguntza-tresna bat garatuko du, Machine Learning eta Adimen Artifizialaren teknikan oinarritua. Horri esker, datu historikoetan eta gaur egungoetan oinarritutako erabakiak hartu ahal izango dira, iragartzeko erduz gain. Tresna digitala, kode irekian diseinatuko da, beste ur-operadore batzuek teknologia aurreratu erabiltzeko aukera izan dezaten; bestela, teknologia hori eskurazina izango litzateke, kostua dela-eta.

Proiektuaren helburu nagusiak hauek dira:

- Aktibo guztiak irudikatzea eta digitalizatzea, eta biltzeko, hornitzeko, saneatzeko, arazteko eta isurtzeko sistemak ebaluatzea.
- Uraren bilketa kudeatzeko eraginkortasuna handitzea.
- Uraren hornikuntzaren eta banaketaren kudeaketan eraginkortasuna handitzea.
- Uraren saneamenduaren eta drainatzearen kudeaketan eraginkortasuna handitzea.
- Isurketa-uren kudeaketaren eraginkortasuna handitzea.
- Urarekin lotutako datuen komunikazioaren eraginkortasuna eta gardentasuna hobetzea.
- Data handiko ingurune batean erabaki hartzeak erraztea.
- Uraren hiri-kudeaketan energia-eraginkortasuna hobetzea

(4) Akzio propioen erosketa.

Ekitaldian zehar, Sozietateak ez du inoiz ere beraren akziorik eskuratu edo erosi.

(5) Beste gertakari batzuk.

2024an, Uraren Ziklo Integraleko urteko inbertsio nabarmenen artean, Eguzkitzako kolektorearen obra amaitu izana nabarmendu behar da, bai eta Irungo Santa Elena kalea eta abar berrurbanizatzeko obrekin lotutako hainbat berrikuntza eta Hondarribiko hainbat kokalekutan egindako asfaltatze-obrak ere.

2024ko ekitaldian, plaka fotovoltaikoak jarriko dira hainbat instalaziotan, ahalik eta energia-autohornikuntza handiena lortzeko, 2025ean jarraituz.

Kontzientziazio-kanpaina orokorrak egin ahal izan dira, merka2dasoa bezelakoa, baita BIDASOS2030 kanpainaren hasiera ere, Irungo 9 auzotan eta Hondarribiko 2 auzotan leku hartu duena. Izan ere, 1.871 abonatu berri sartu dira gaikako bilketa horretan. Kanpaina hau, ER/70 deitu dugun hondakinen arloko estrategia berri baten barruan sartzen da, 2022an abian jarritakoa, eta, bere izenean ikusten den bezala, 2025ean % 60 eta 2030ean % 70 birziklatzeko helburuak lortzera eramango gaituen ibilbide-orri bat ezartzen du, Europako legerian ezarritakoen gainetik eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren helburuekin lerrokatuta.

Azpmarratu nahi dugu, halaber, 2023az geroztik Txingudiko Zerbitzuak baduela bere Osotasun Eskuliburua, gardentasuna, gobernu ona eta gizartearekiko konpromisoa bermatu eta indartzeko helburuarekin. Halaber, erakundearen Kanal Etikoa ere martxan dago, eta honako hauek bateratzen ditu:

- otsailaren 20ko 2/2024 Legean aipatzen den barneko informazio-sistema, arauhausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duena,
- Zigor Kodearen 31 bis artikuluan adierazitako bide etikoa, pertsona juridikoen erantzukizun penalari buruzkoa,


- hala badagokio, erakundearen iruzurraren aurkako planaren salaketa-kanala, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan laguntzak jasotzeko aukeraren aurrean.

Horrekin guztiarekin, "benetako kultura etiko korporatiboa" lortu nahi da. Horretarako, antolaketa- eta kudeaketa-eredu bat ezarri nahi da, Txinzer osatzen duten pertsonen hartu beharreko erabaki guztietan balio horiek presente egotea lortzen duena eta araudia betetzearen erabateko konpromisotik abiatuta.


Eredu horiek ezinbestekoak dira enpresak behar bezala kudeatzeko, arriskuak kudeatzeko sistema integralak baitira, arrisku horiek arintzeko edo ezabatze eskura dituzten gainerako barne-arauak, protokoloak eta prozedurak betetzen direla zainduko dutenak.

2025eko martxoaren 26a

Administrazio Kontseilua:


Cristina Laborda Albolea and.
Lehendakaria


Borja Olazabal Toro jn.
Batzordekidea


Gorka Alvarez Aranburu jn.
Batzordekidea


David Nuño García jn.
Batzordekidea


Ortzi Alonso Murelaga jn.
Batzordekidea



Noemí Odriozola Pascual and.
Batzordekidea


Igor Enparan Araneta jn.
Lehendakariordea


Jon Ugarte Petricorena jn.
Batzordekidea


Oihana Briones Aramendi and.
Batzordekidea


Iñigo Manrique Cía jn.
Batzordekidea


Gonzalo Carrión Insausti jn.
Batzordekidea


Garoa Lekuona Izeta and.
Batzordekidea